



# Izugarrizko kirol eguna


Sustoak susto, gu beti munstro!



A. B. Saddlewick

desclée





# Lehenengo kapitulua

Quentin arratoiak, Mauden maskota txikiak, burua atera zuen Mauden poloaren poltsikotik, inguruan gertatzen zenaz jabetzeko irrikaz. Baina, Penelope ikusi bezain azkar, ikarazko txilio zorrotz bat bota, eta ziztuan ezkutatu zen berriro sakelari.

Maudek barre bihurri bat entzun zuen bere atzean, eta begiratzeko jiratu zenean, hara! Nor ikusiko eta, Penelope Pozoitsua, gutxien maite zuen ikaskidea. Penelope sorgina zen, soineko beltz zarpaila, punta zorrotzeko txanoa eta ile luze morea zituena, eta ez zuen sekula aukerarik galtzen Paprika eta Maud zirikatzeke.

—Aupa, Paprika! Laster kirol eguna dugu –animatu zuen Maudek—. Gai zara! Badakit gai zarela!

Paprikak abiada hartu, eta metalezko kaskoa sarerantz jaurti zuen bere indar guztiaz. Bote bat, bi bote...

...eta kaskoa ate-zutoinetik bi metrora pasatu zen, eta kirol zelaiaren atzealdeko belardian galdu.

—A zer jokaldi kaxkarra! –oihukatu zuen Galahad jaunaren buru gorpuzgabeak kasko baretik. Gainerako gorputza kirol zelaiaren beste aldean zegoen besoak gurutzatuta, Paprikaren jokaldiarekin haserre. Galahad jauna Enbor Usteko gorputz heziketako irakaslea zen, eta armaduraz jantzita ibiltzen zen beti.

Maudek hasperen egin, eta belardira hurbildu zen arin Galahad jaunaren buruaren bila.

—Hemen, neska! –adierazi zion buru gorpuzgabeak, bibote iletsua bihurritzen zitzaiola.

—Aurkitu zaitut, jauna –esan zuen Maudek. Burua lurretik jaso, eta Paprikari bota zion berriro, baina banpiroari eskuetatik irristatu, eta kirol zelaiaren beste aldera bidali zuen.

—Aaaaa! –orro egin zuen irakaslearen buruak, airean jirabiraka zihoala—. Jar ezazu arreta pixka bat, mutiko! Hau ez da kasko barrubiguna!

—Barkatu, jauna –murmurikatu zuen Paprikak ikaskideei lotsa-lotsa eginda begiratzuz.

3B eta 2C ikasgelek ordu erdi zeramaten elkarren aurka munstrobaloian, eta Paprikak ez zuen gol bakar bat ere sartu. Berdin zion atearen ondo-ondoan bazegoen ere; gola sartzea bere ahalmenetik kanpo zegoela zirudien.

Horrek asko tristatzen zuen Maud. Paprika banpiroa zenez, denek espero zuten indartsua eta azkarra izatea, eta ezin zuten ulertu nolatan izan zitekeen hain txarra gorputz heziketan. Baina Maudek berriki jakin zuen Paprika egiazki erdi-banpiroa eta erdi-gizakia zela. Eta argi zegoen ez zela banpiroaren alderdia nagusitu kirola egiteari zegokionez.

Paprikak sarean finkatu zuen begirada. Kopeta zimurtu, eta berriro jaurti zuen Galahad jaunaren burua. Baina, oraingoan, atera ere ez zen iritsi: bidearen erdian zerbaiten kontra talka egin, eta lu-

rrera erori zen kaskoa. Paprikak bizkarra eman zien taldekideei, lotsaren lotsaz gorri-gorri baitzegoen.

—Ai! —oihu egin zuen ahots batek kaskoa erori zen tokitik. Isabel zen, Mauden ikaskide ikusezina—. Bukatu da niri gauzak botatzen ibiltzea! Inork ez dit inoiz kaskoa pasatzen, eta hori gutxi balitz bezala, orain burura botatzen didazue.

—Ez du nahita egin —Maud Isabel baretzen saiatu zen. Paprika bere lagunik onena zen Enbor Ustel eskolan, eta ez zitzaion batere gustatzen gainerako ikaskideak harekin zakarrak zirenean.

—Zu beti Paprika zuritu nahian! —aurpegiratu zion Penelopek—. Txarra baino txarragoa da! Lau egun besterik ez dauzkagu kirol eguna baino lehen, eta hari esker, azkenak geratuko gara.

—Tira, baliteke munstrobaloian oso ona ez izatea —onartu zuen Maudek eta, aurreko asteko gertakari bat gogora ekarriz, honela jarraitu zuen—, baina bera gutxienez ez da koldar bat panpina txiki bat ikustean ziztuan ihes egiten duena.

—Benetako edozein munstro ikaratuko zen gauza nazkagarri horrekin –esan zuen Penelopek Maudi begirada makurra eginez—. Eta, nire iritzia nahi baduzu, bitxia da zu ikaratu ez izana.



Maud oso deseroso sentitu zen. Bera zen Enbor Ustelen benetako munstroa ez zen ikasle bakarra. Penelope sorgina zen, Paprika erdi-banpiroa eta Isabel Ikusezina zera zen... ikusezina. Baina Maud neska arrunt bat besterik ez zen. Astebete baizik ez zeraman Enbor Ustelen, eta “Tutu” bat zelako plantak egiten zebilen eskolan geratu ahal izateko. Lehenago Udaberri-loreen eskolan ikasten zuen, baina Enbor Ustel askoz ere gehiago gustatzen zitzaion.

—Jarrai dezagun jokoarekin –oihukatu zuen Galahad jaunak. Buru gorpuzgabea inurrien habia baten ondoan zegoen, eta bere begiek ingurura begiratzen zuten urduri, xomorroen ilara bat bere sudur zuloetara zihoala ohartuta.

Wilf otso-gizonak Galahad jaunaren burua kirol zelaia-aren erdira zekarren bitartean, Maudek eskua poloaren poltsikoan sartu, eta Quentin laztandu zuen.

Laguntxo dardarka zegoen, Mauden lasterketa saioaren ondorioz. Quentin gaixoa, beti urduri!

—Ondo da —esan zion Maudek—. Ez duzu zertan kezkatu.

—Aurrera! —garrasi egin zuen Galahad jaunak kasko barnetik.

Maud ziztuan atera zen korrika eta kaskoa hartzea lortu zuen. Kirol zelaian barrena abiatu zen lasterka, bidean momia bat eta deabru bat saihestuz, eta gola sartzeaz zegoenean Martin Hezurruts mutiko eskeletoa oldartu zitzaion. Maudek hurbilen zuen taldekideari jaurti zion Galahad jaunaren burua.

Zoritxarrez, taldekide hura Paprika zen.

Paprika lasterka joan zen kaskoa harrapatzera, gorantz begira eta besoak zabal-zabalik. Maudek arnasari eutsi zion. Oraingoan, benetan hartuko zuela zirudien. Baina mutikoaren hatzak kaskoa



ukitzear zeudela, koitaduak behaztopa egin, eta lurrera erori zen.

—Jokaldi bikaina! –burla egin zion Penelopek.

Galahad jaunaren burua lokatz putzu batean erori zen.

—Norbaitek lokarriak lotu dizkit! –kexatu zen Paprika.

—Zu beti aitzaki-maitzaki hutsean! Zatoz hona eta atera nazazu berehala zopa nazkagarri honetatik! –agindu zion Galahad jaunak putzutik gurgurka.

Maudek Penelope ikusi zuen kirol zelaiaren zoko batean barrez lehertzen, eta berehala ulertu zuen gertatutakoa: Penelopek sorginkeria egin zuen Paprikaren lokarriak elkarri lotzeko. Mari Gaizto alaena! Maudek ezin zuen jasan Penelopek Paprikari burla egitea, baina sorginkeria erabiltzea... hori gehiegizkoa zen! Peneloperi txanpon berarekin ordainduko zion, bai horixe!

Ez zen erraza munstro bat ikaratzea. Armiamak, hilerriak eta arratoiak alferrikakoak ziren, baina Maudek berriki jakin zuen bazela izu-laborria

eragiten zien zerbait: panpinak eta hartzatxo arrosak bezalako gauza samur eta maitagarriak. Hortaz, bazekien zerekin beldurtuko zuen Penelope.

Sorgina arrapaladan zihoan irakaslearen burua hartzera, baina Maud oihuka hasi zitzaion:

—Kontuz, zure atzean untxi bat dago!

Penelope, begiak zabal-zabalik zituela, atzera begiratzeko jiratu, eta Oskar mutiko burugabearen kontra egin zuen talka, eta biak erori ziren lurrera. Sorginak, haserre biziz suturik, Maudi begiratu zion, aurpegia ilea bezain more zuela. Lurretik altxatzeko tarterik hartu gabe, besoa luzatu, eta zerbait murmurikatu zuen.

Maud makurtzen saiatu zen, baina beranduegi zen. Sekulako zartakoa jaso zuen sabelean, esku erraldoi batek jo izan balu bezala, eta lurrera erori zen bortizki, airerik hartzeko gai ere zela.

Maud kostata altxatu zen eta Peneloperi oldartu zitzaion berehala. Ordurako 3B eta 2C ikasgeletako ikasleak inguruan zituzten, “*Borroka! Borroka!*” oihukatzen.

Maud Peneloperen gainean zegoen ia, baina gorputz erraldoi batek bidea itxi zion, eta Maudek, noski, bat-batean geratu behar izan zuen: Galahad jauna zen.

Esku bat gerrian finkatua zuen, bestearekin buru bustiari eusten zion bitartean. Bibotea ur lokaztuaz blaitua zuen.

—Nahikoa da, neskak. Bukatu dira txatxuke-riak! –esan zuen haserre—. Zuzendariaren bulegora berehala!

Penelope zurbil-zurbil jarri zen.



# Bigarren kapitulua



Maud Zuzendariaren bulegoaren kanpoko zurezko aulki korrokoil batean eseri zen, eta gonaren tolesturekin jolasten hasi zen urduri.

Penelope aldameneko aulkian zegoen, eskuak belaunetan finkatuak, eta Maud ohartu zen ikararen ikaraz dardarka zituela. Ez zen harritzekoa. Enbor Usteleko ikasle guztiak Zuzendariaren beldur ziren, eta haren bulegotik zetozen ulu arraroek ez zuten batere laguntzen.

—Zergatik zaude dardarka? —galdetu zion Mau-  
dek—. Posible ote da zu bezalako sorgin beldurgarri  
bat Zuzendariaren beldur izatea?